

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**262/2016 Foru Agindua, urriaren 25ekoa, behin betiko onartzen duena Asparrena udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren espedientea, baldintzekin eta etendura partzialarekin**

#### I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Asparreneko Udalak, 2012ko azaroaren 8ko bilkuran, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra prestatzeari ekitea erabaki zuen, 2004ko otsailaren 20an behin betiko onartu ziren indarreko Arau Subsidiarioak berrikusteko eta udal planeamendua lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen aginduetara egokitzeko. Halaber, 2/2006 Legearen 90.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Eusko Jaurlearitzako eta Arabako Foru Aldundiko organo eskudunei artikulua horretan aipatzen diren txostenak eskatzea erabaki zuen. Era berean, udalerriko administrazio batzarrei kontzejuaren titulartasuneko zerbitzuen antolamendurako kontuan hartu beharreko irizpideei eta Plan Orokorra lantzerakoan aintzat hartu beharreko beste edozein irizpideri buruzko txosten bat eskatu zien.

Bigarrena. 2013ko apirilaren 4ko bilkuran, Asparreneko Udalak Plan Orokorren Aurrerapena jendaurrean jartzea erabaki zuen, eta, horretarako, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOren 45. zenbakian, 2013ko apirilaren 19an, eta El Correo egunkarian, 2013ko apirilaren 16an; horrez gain, udalerriko administrazio batzarrei eta udalerriri mugakideetako udal administrazioei jakinarazi zitzaizen eta ediktu taulan eta udalaren webgunean ere iragarkia jarri zen.

Jendaurrean jartzeko aldi 59 iradokizun aurkeztu ziren, eta idazketa taldeak horiei buruzko txostena egin zuen. Udalak, 2013ko urriaren 21eko bilkuran, aurkeztutako iradokizunak ebatzi egin zituen, aipatutako erabakian jaso den bezala.

Hirugarrena. 2014ko abuztuaren 4ko bilkuran, Asparreneko Udalak Plan Orokorren Aurrerapena behin-behinean onartzea eta jendaurrean jartzea erabaki zuen, ingurumen iraunkortasunari buruzko txostenarekin batera, eta, horretarako, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOren 95. zenbakian, 2014ko abuztuaren 25ean, eta El Correo egunkarian, 2014ko abuztuaren 20an; horrez gain, udalerriko administrazio batzarrei eta arloko eskumenak zituzten herri administrazioei jakinarazi zitzaizen eta ediktu taulan ere iragarkia jarri zen.

Laugarrena. Jendaurrean jartzeko aldi 45 iradokizun aurkeztu ziren, eta idazketa taldeak horiei buruzko txostena egin zuen. Udalak, 2015eko maiatzaren 21eko bilkuran, espedientea behin-behinean onetsi egin zuen, aurkeztutako alegazioak baietsita eta ezetsita. Halaber, espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaltzeko agindu zuen. Era berean, udalerriko administrazio batzarrei jakinarazi zitzaizen erabakia.

Bosgarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak espedientearen txostena egin zuen irailaren 16ko 5/2015 bilkuran eta horren inguruan emandako ziurtagirian jaso ziren baldintzak ezarri zituen. Horrez gain, adierazi zuen espedienteak ez zuela berriro batzordearen txostenik jaso behar. Era berean, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak, Etxebizitzako Sailburuordetzak, Uraren Euskal Agentziak (URA) eta Arabako Foru Aldundiko Hirigintza Zerbitzuak egindako txostenak erantsi dira.

Seigarrena. Hiri Antolamendurako Plan Orokorren hirigintza prozedurarekin batera, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera, ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura ere izapidetu da; ingurumen memoria 2015eko apirilaren 23an egin da.

Zazpigarrena. Behin-behinean onesteko erabakiaren ondoren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak egindako txostenaren ondorioz, bertan SAUI-2 sektorearen sailkapen aldaketa ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritako prozeduratik kanpo egin zela adierazi baitzen, Asparreneko Udalak, 2015eko urriaren 2ko bilkuran, SAUI-2 industria sektorearen desklasifikazioa berriro jendaurrean jartzea erabaki zuen. Horretarako, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOren 124. zenbakian, 2015eko urriaren 23an, eta Diario de Noticias de Álava egunkarian, 2015eko urriaren 9an; horrez gain, udalaren iragarki taulan argitaratu zen eta udalerriko administrazio batzarrei jakinarazi zitzaion.

Jendaurrean jartzeko aldia Araba Garapen Agentzia SAk alegazio bat aurkeztu zuen, eta idazketa taldeak horri buruzko txostena egin zuen. Udalak, 2015eko abenduaren 3ko bilkuran, Araba Garapen Agentzia SAren alegazioa ezetsi zuen eta espedientea Arabako Foru Aldundiari bidaltzeko agindu zuen, behin betiko onetsi zezan; 2015eko abenduaren 16an sartu zen.

Zortzigarrena. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2016ko martxoaren 10ean sartu zen idazkiaren bidez, Asparreneko Udalak, Lurraldea eta Hirigintza Antolatzeko Zerbitzuak Hiri Antolamendurako Plan Orokorrearen espedienteari dagokionez egindako txosten juridikoa eta teknikoa ikusita, espediente hori kentzeko eta ebazpena emateko epea eteteko eskatu zuen.

Bederatzigarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren martxoaren 14ko 71/2016 Foru Aginduaren bidez, Asparreneko Udalak kentzeko eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorrearen espedientean ebazpena emateko epea eteteko egindako eskaera onetsi zen.

Hamargarrena. 2016ko apirilaren 7ko bilkuran hartutako erabakian, Asparreneko Udalak 2015eko abenduaren 3ko behin-behinean onesteko erabakia errebokatzea erabaki zuen. Halaber, hasierako onespren berri bat erabaki zuen Arabako Foru Aldundiaren txostenen arabera aldatutako zehaztapenei dagokienez. Zehaztapen horiek jendaurrean jarri ziren. Horretarako, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOren 43. zenbakian, 2016ko apirilaren 18an, eta Diario de Noticias de Álava egunkarian, 2016ko apirilaren 13an; horrez gain, udalaren iragarki taulan argitaratu zen eta udalerriko administrazio batzarrei jakinarazi zitzaion.

Hamaikagarrena. Jendaurrean jartzeko aldia 10 alegazio aurkeztu ziren, eta idazketa taldeak horiei buruzko txostena egin zuen. Udalak, 2016ko ekainaren 2ko bilkuran, espedientea behin-behinean onetsi egin zuen, aurkeztutako alegazioak ezetsita. Halaber, espedientea Arabako Foru Aldundiari bidaltzeko agindu zuen, behin betiko onetsi zezan.

Hamabigarrena. Ingurumen eta Hirigintza zuzendariaren 2016ko ekainaren 27ko idazkiaren bidez, Asparreneko Udalarri eskatu zitzaion, Arabako Foru Aldundiak eman behar duen ebazpenaren aurretik, Plan Orokorrearen espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen aurretiko txostenaren menpe jartzeko.

Asparreneko Udalak, 2016ko uztailaren 8an, Plan Orokorrearen espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidali zion.

Hamahirugarrena. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2016ko uztailaren 26an sartu zen idazkiaren bidez, Asparreneko Udalak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendariak bidali zion gutunaren kopia bidali zuen. Bertan, hauxe esaten da hitzez hitz:

“Ildo horretan, jakinarazi behar dizut EAELABen aipatutako txostenak berariaz adierazten duela I.4b atalean, jarduera ekonomikoko lurzorua antolamenduari eta kuantifikazioari buruzkoan, puntualki SAUI-2 arearen sailkapen aldaketaren kontrako txostena egin zela. Hala ere, txosten horrek zehazten du, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen lehen xedapen gehigarriko 3. puntuan ezarritakoaren ondorioetarako, aipatutako txostenean jasotzen diren baldintzak txertatutakoan, aurkeztutako espedientea behin betiko onetsi ahalko dela batzorde honek berriro horri buruzko txostenik egin behar izan gabe”

Idazki hori ikusita, Asparreneko Udalak uste du ez dela EAELABen txosten berririk behar. Beraz, espedientea behin betiko onesteko eskatzen du.

## II. OINARRIAK

Lehenengoa. Asparreneko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren espediente hau 2004tik indarrean dauden Asparreneko Udal Planeamenduko Arauen zein orain arte izapidetutako 4 aldaketa puntualen berrikuspena da. Era berean, azpimarra daiteke azken urte hauetan udalerrian bizitegitarako hiru plan partzial egin direla Arriolan eta Albeizen, bateragarritze plan bat Asparrena-Donemiliagako industrialdean eta plan partzial bat Asparrena eta Donemiliagako industria sektorean.

Plan Orokorren agiri teknikoak egitura zuzena du eta, oro har, indarreko legeriak xedatzen duena betetzen du, hain zuzen ere, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak eta Lurzoruaren Legearen testuategina onesten duen ekainaren 20ko 2/2008 Errege Dekretuak xedatutakoa.

Bigarrena. Asparrena udalerririk, gutxi gorabehera, 66 km<sup>2</sup>-ko azalera eta 1671 biztanle ditu; horietatik % 75 Araian biltzen dira. Beste 9 herriguneez 13 eta 80 biztanle bitarteko biztanleria daukate. Azpimarra daiteke udalerririk horretarako biztanleria egiturak aldaketarik gabe iraun duela eta pixka bat igo ere egin dela (% 4ko gehikuntza) 2000. urtetik. HAPOk udalerririk azalaren % 68 udalaz gaindikoko babesak daukan babes bereziko zona gisa sailkatzen du, parke naturala barne, eta % 27 zona zaindu gisa sailkatzen du, alegia, baso zonak, nekazaritza eta abeltzaintza zonak eta bazka menditarrak. Udalerririk babes bereziko zona garrantzitsuenen artean hauek bereizten dira:

a) Arakil ibaiko eta Barrundia ibaiko kontserbazio bereziko eremuak (KBE)

b) Aizkorri-Aratz EBIL; Aizkorri-Aratz parke naturalaren zedarriztapen zabalarenekin barne hartzen da, bai erreserba eta kontserbazio aktiboko zona bai zona periferikoa.

Aizkorri-Aratz parke naturaleko lursailak 75/2006 Dekretuaren, Natur Baliabideak Antolatzekeo Plana onartzen duenaren, arabera zuzenduko dira, baita etorkizunean onetsiko den Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzekeo Planaren arabera ere. Era berean, parkeko EBIL dagokion Kudeaketa Planaren arabera zuzenduko da, KBE babes bereziko eremu gisa izapidetu ostean.

Asparrena nukleo anitzeko udalerririk da eta bizitegitarako finkapeneko 10 herriz osatuta dago: Albeiz, Ametzaga, Andoin, Arriola, Egino, Gordoia, Iburguren, Ilarduia, Urabain eta Araia. Azken horretan biltzen dira biztanle gehienak, baita udalerririk ekipamendu eta zerbitzuak ere. Era berean, udalerririk mugakidearekin partekatutako industrialdea dauka, Asparrena-Donemiliagako industrialdea.

Asparrenak azpiegituren egitura ardatz handi bi dauzka, alegia, A-1 eta trenbide sarea. Oso azpiegitura garrantzitsuak dira, udalerririk ekialdetik mendebaldera zeharkatzen dute eta bitan zatitzen dute: iparraldean eta A-3012 errepideari lotuta Arriola, Gordoia, Ametzaga, Araia, Albeiz, Ilarduia eta Egino daude; hegoaldean eta A-3118 errepideari lotuta, berriz, Urabain, Iburguren eta Andoin daude.

2004. urtetik, data horretan onetsi baitzen indarreko Udal Planeamendua, gaur egunera arte, han ezarritako xedapen gehienak garatu dira, batez ere hiri lurzoruan, eta ez hainbeste udalerririk herrigunetako lurzoru urbanizagarrian eta industrialdean.

1. Hauek dira Asparreneko HAPOren hirigintza antolamenduen irizpide eta helburu orokorrak:

1.1. Ahalik eta lurzoru gutxien kontsumitzea, dagoeneko hiriko gisa sailkatutako lurzoruak birdentsifikatuz eta hobetuz.

1.2. Lurralde eredu berririk egokitzea, iraunkortasun neurriak ekarririk ur kontsumoari, arazketari, energia birgaitzeari eta abarrik dagokienez.

1.3. Udallerriak ezaugarri dituen balioei eustea, hala nola tokiko ekoizpenari, energia eta elikagai nahikotasunari.

1.4. Lurzoru urbanizaezina babestea, Entzia-Aizkorri igarobide ekologikoaren figura indartzuz.

2. Araia herrigune nagusiari dagokionez, Plan Orokorrak jarduketa batzuk zehazki definitzen ditu; hirigintza arau berezietako antolamendu xehatuko eremua edo AXE bakoitzean zehazten dira.

2.1. Herrigune historikoa oinezkoentzat egitea (Goikoetxea kaletiko sarbide berri baten bitartez); horren barruan, plazaren ingurunea, eliza, pilotalekua eta Presalde kalea, jauregiko fatxadaren eta berdegunearen artean, barne hartzen dira.

2.2. Futbol zelaiko kirol eremua handitzea; sistema orokor gisa sailkatuta dago eta S1 sektorean barne hartzen da.

2.3. Indarreko planean urbanizagarri gisa sailkatutako lurzorua, S1, S2 eta S3 sektoreei dagokiena, murriztea. Era berean, SAUR-4 bizitegitarako sektorea eta SAUI-2 industria sektorea desklasifikatzea proposatzen da.

2.4. Zirauntzako ibai parkeko sistema orokorra indartzea, indarrean dauden Arau Subsidiarioetan dagoeneko proposatu den moduan. Berdegune etengabea duen sistema orokorra da, zenbait lurzoru motatan, urbanizaezina, hiri lurzoru finkatugabea eta hiri lurzoru finkatua.

2.5. Lurzoru urbanizaezinaren balioa azpimarratzea, kategorizazio berri bat emanez eta lotura eta ibilbide berdeen sarea hobetuz.

3. Lurralde Planeamendu Partzialari dagokionez, Arabako erdialdeko LPPk Araia herrigunea finkatzea proposatzen du, bizitegitarako garapenaren alde eginez; hartara, Ajuria Uri-goitiko antzinako instalazio siderurgikoa birmoldatzea eta Done Jakue bidea barne hartzea nabarmentzen da. Era berean, eta jarduera ekonomikoen lurzoruari dagokionez, Asparreneko eta Donemiliagako lurzoruak N-1 errepidearen ingurunean finkatuko dira.

Hirugarrena. Plan Orokorrearekin batera, eta indarreko legeriaren eta araudiaren arabera, dagokion ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura zuzenki izapidetu da, 211/2012 Dekretua betez. Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak, 2015eko apirilaren 23an, ingurumen memoria egin zuen.

Plan Orokorren agiri teknikoak "Ingurumen memoria Asparreneko Antolamendurako Plan Orokorrean sartzeko arrazoiketa" izeneko eranskina barne hartzen du; bertan, izapidetutako ingurumen prozedura estrategikoaren ondoriozko baldintzak eta oharrik betetzen dira.

Laugarrena. Asparreneko HAPO osatzen duten agirien egitura zuzentasunez eta indarreko hirigintza legeriaren arabera aurkeztu da. Asparreneko HAPO Arabako Foru Aldundiak eginiko "Arabako Planeamendu Normalizazioa" delakoaren metodologiaz egin da. Beraz, dokumentazio sistematizatua dauka eta memoria, hirigintza araudia, planoak, ekonomia eta finantza bideragarritasunari buruzko azterketa eta ekonomia iraunkortasunari buruzkoa jasotzen ditu.

1. liburuak, arau orokorrei buruzkoak, erabileren sailkapena eta kalifikazio globalaren sistematizazioa biltzen ditu, oinarriko zona mota, zona taldea eta antolamendu xehatuko eremua barne. 2. liburuak, arau bereziei buruzkoak, antolamendu xehatuko eremu edo AXE guzti-guztiak biltzen ditu, arau bereziekin bat etorritik, eta AXE bakoitzaren baldintza bereziak zehazten ditu, hala nola antolamenduaren irizpideak, antolamendu xehatuaren hirigintza eta eraikuntza parametroak, gauzatze araubidea, eraikuntzaren baldintzak, etab.

Bosgarrena. Azpiegiturei dagokienez.

Agiri teknikoak hiri azpiegituren planoak aurkezten ditu, bai Araia herrigune nagusiarenak bai gainerakoak; horiek hornidura, saneamendu, elektrizitate sareak eta bestelakoak islatzen dituzte eta haien ezaugarriak eta ahalmenak adierazten dituzte, bai egungo egoera bai etorkizuneko garapenarako aurreikuspena kontuan hartuz.

Arabako Foru Aldundiak sare inbentario bat dauka, Lurraldea eta Hirigintza Antolatzeko Zerbitzuak berak egina, eta udalei edo idazketa taldeei eskuarki eta modu sistematikoan ematen zaie Plan Orokorra kontratatzeko eta egiteko hasierako prozesuetan. Egiatzatzeko azterketa bat egin ostean, ikusi da plano horien oinarritzko informazio digitala eta Arabako Foru Aldundiak prestatutakoa berberak direla.

Seigarrena. Lurzoruaren sailkapenez.

Asparreneko HAPOk indarreko Planeamenduko Arau Subsidiarioetan lurzoru urbanizagarriko bi eremu, SAU-4 bizitegitarako sektorea eta SAUI-2 industria sektorea, desklasifikatzea planteatzen du. Era berean, Araiako hiru sektore urbanizagarrien zedarriztapena birdoitzea eta bakoitzaren azalera murriztea proposatzen du.

A) Bizitegitarako hiri lurzorua:

Proposaturiko bizitegitarako hiri lurzorua, funtsean, badagoena da, doikuntza txiki batzuekin. Hiri lurzoruko sailkapena araututa dago, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 11. artikuluan definitzen da eta aipatutako artikuluan deskribatutako hirigintza zerbitzu guztiak baliatzen dituen da. Beraz, lurzoru horretan garatu dira legeak xedatutako urbanizatze ekintzak; horiek urbanizazioa hiri finkapenetan osatzeari edo egokitzeari soilik egokitu ahal zaizkie aurretik edo indarrean dagoen planeamenduan eta haren aldaketetan garatutako eta xedatutako lurzoru urbanizagarriko sektoreak gauzatu edo berriro urbanizatu ostean.

Hiri lurzoru finkatugabe gisa sailkatuta eta Araiako antolamendu xehatuko arloetan banatuta dagoen lurzoruan, guztira, 252 etxebizitza xedatzen dira, aurreikusitako 487 etxebizitzetatik. Beraz, aurreikusitako etxebizitza kopuruaren % 50 baino gehiago Araiarako eskaini nahi dira, hiri lurzoru gisa sailkatutako lurzoruan, lurzoru urbanizaezinari dagokion lurzoru hutsa artifizializatu behar izan gabe.

Beraz, horri dagokionez balioespena aldekoa da, hiri lurzorutzat sailkatutako lurzoru hutsa lohiz betetzea xede duen lurralde ereduaren ikuspuntutik.

ANTOLAMENDU XEHATUKO EREMUAK HIRI LURZORUAN			
	DAUDEN ETXEB. KOP.	ETXEB. KOP. ZENBATETZIA	HIRIKO GUZTIZKOA
ARAI A	754	252	
ALBEIZ	47	0	
AMETZAGA	22	6	
ANDOIN	18	3	
ARRIOLA	40	3	
EGINO	35	6	
GORDOA	19	14	
IBARGUREN	11	4	
ILARDUIA	48	16	
URABAIN	8	2	
<b>UDALERRIKO GUZTIZKOA</b>	<b>1.002</b>	<b>306</b>	<b>1.308</b>

B) Bizitegitarako lurzoru urbanizagarria:

Indarrean dagoen Asparreneko Planeamenduko Arau Subsidiarioek Araiako 4 sektore urbanizagarri eta Albeizen bizitegitarako sektore bat xedatzen zituzten. Hala ere, HAPOk horietako bat ezabatzea, Araiako SAU-1, SAU-2 eta SAU-3 sektoreen azalera murriztea eta Albeizko S-1 sektoreari eustea proposatzen du.

Urbanizazio prozesuan sartu nahi den lurzoru urbanizaezinaren azaleraren okupazioa nekazaritza jardueraren gaineko eraginik sortu gabe justifikatuta dago eta neurritasun handiaz proiektatuta dago. Izan ere, zehatz-mehatz, indarreko Arau Subsidiarioetako lurzoru urbanizagarriaren sailkapena murriztea proposatzen du; zehazki, indarreko Arau Subsidiarioetan 194.382 m<sup>2</sup> dira eta Plan Orokorrean 79.096 m<sup>2</sup> izatea nahi da.

ANTOLAMENDU XEHATUKO EREMUAK SEKTORIZATUTAKO LURZORU URBANIZAGARRIAN		
	PROPOSATURIKO ETXEB. KOP.	
ARAIA	235	
ALBEIZ	38	
<b>UDALERRIKO GUZTIZKOA</b>	<b>273</b>	<b>273</b>

Hala ere, Plan Orokor honetan eskainitako etxebizitza kopurua, indarreko arauekin erkatuta, antzekoa da; izan ere, 273 etxebizitza proposatzen dira, eta Arau Subsidiarioetako sektore urbanizagarrietan 289 etxebizitza aurreikusten ziren. Beraz, lurzoru urbanizagarriaren azalera nabarmen murriztu da, baina etxebizitza kopurua antzekoa da; eraldaketa horretarako, esparru horietako egitura antolamenduko hirigintza parametroak aldatu behar dira, hala nola eraikigarritasuna, eraikuntza mota, dentsitatea, etab.

#### C) Industria lurzoru urbanizagarria:

Plan Orokorren agiri teknikoak, behin betiko onesteko agirian, SAUI-2 industria sektorea, Asparreneko indarreko Planeamenduko Arau Subsidiarioetan urbanizagarri gisa sailkatua, ezabatzea planteatzen du. Industria sektore hori gaur egun lurzoru urbanizagarri gisa dago sailkatuta Asparreneko indarreko Arau Subsidiarioetan, 117/2004 Foru Aginduaren bidez onartutakoetan.

Plan Orokor honen aurrerapeneko eta hirigintza informazioko lehen faseetan, SAUI-2 urbanizagarri gisa planteatzen zen, baina funtsezko desberdintasun batekin: sektorizatu gabeko urbanizagarri gisa kategorizatu zen.

HAPOk azken proposamenari, Asparrena-Donemiliagako industrialdean kokatutako SAUI-2 sektoreko industria lurzoru desklasifikatzekoari, dagokionez, Araba Garapen Agentziak 2016ko urtarrilaren 27an Arabako Foru Aldundi honetan aurkeztu zuen alegazioa azpimarra daiteke. Horretarako txosten osagarri gisa, Araba Garapen Agentziak, 2016ko martxoaren 7an, beste idazki bat bidali zuen, non arreta handiagoaz argudiatu zuen SAUI-2 sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarri gisa uzteko justifikazioa.

Plan Orokorren agiri tekniko berriak, 2016ko apirilaren 8tik aurrera jarri baitzen berriro jendaurrean, ez du esparru horretan hirigintza sailkapenaren edo kalifikazioaren aldaketarik jasotzen, hau da, SAUI-2 esparru guztia lurzoru urbanizagarri gisa desklasifikatzeari eusten dio. Ildo horretan, eta argudiatutakoa kontuan izanik, hurrengo atalean SAUI-2 esparru horren onespena eteteko proposamena modu argian eta arrazoituan funtsetzen da.

Zazpigarrena. SAUI-2 industria lurzoru urbanizagarria eta EAELAB.

Industria lurzoru urbanizagarria (SAUI-2) desklasifikatzeari dagokionez, berrikusi diren Arau Subsidiarioetako industria lurzorukoak baitzen, eztabaida sortu da Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak desklasifikazio horri buruzko txosten berririk egin behar duen ala ez, kontuan izanik zehaztapen hori berriro jarri zela jendaurrean 2015eko maiatzaren 21eko Plan Orokorra behin-behinean onesteko erabakiaren ostean. Horri dagokionez, zera adierazi behar da:

Hiri Antolamendurako Plan Orokorren izapidetzea eta onspena lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 84. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da; hain zuzen, 91.2 artikuluan ezartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak espedientea behin betiko onetsi aurretik esku hartuko duela. Zehatz-mehatz, artikulua horrek zera dio:

“Plan orokorra udalak onartuko du behin-behingo eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaliko dio. Batzordeak txostena egingo du, eta txostenak dioena loteslea izango da plan orokorra lurralde-antolamenduko tresnei egokitzeari dagokionez eta, aplikagarri den araudiaren arabera eta onartutako udalez gaineko proiektuen ara-bera, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo lurraldeko administrazioaren eskumenero diren alderdi sektorial guztiei egokitzeari dagokionez”

Bestalde, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen lehen xedapen gehigarriak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen eraketa eta funtzioak arautzen dituenak, honako hau ezartzen du 3. puntuan:

“Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txosten nahi-taezkoa eta loteslea espedientearen aldekoa guztiz eta baldintzarik gabe ez bada, ez da beste txostenik beharko, batzordeak horretarako baimena ematen duenean. Kasu horretan, eskumena duen administrazioak zuzenean ebatziko ditu espedienteak, ez baita beste txostenik egin beharko; betiere, batzordeak adierazitako aldaketak eta zuzenketak sartuta egon beharko dute. Hartzten den ebazpenaren berri batzordeari emango zaio, 10 eguneko epean gehienez ere.”

Euskal Autonomia Erkidegoko planeamenduaren onespina hiru faseko prozedura da 7.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan. Izan ere, udal-egoitzan egiten den agiria hasieran eta behin-behinean onetsi ostean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak esku hartzen du; haren txostena loteslea da 91.2 artikulua (lehen transkribatu dugu) aipatzen dituen alderdietan, eta, azken batean, foru aldundiei dagokie espedientea behin betiko onestea.

Arabako Foru Aldundiari dagokio Planean araututako alderdiak kontrolatzea, eta, alderdien horien artean, funtsezkoa da planeamendu orokorreko espedienteak izapidetzeko prozedurari buruzkoa.

Ildo horretan, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.6 artikulua haxe ezartzen du:

“Jendaurreko erakustaldiaren emaitzak ikusita, udalak behin-behingo onartuko du plan orokorra, bidezko iritzitako egokitzapenak eginda. Dena den, egokitzapen horiek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onespina eman beharko dio berriz planari eta jendaurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin-behingo onartu aurretik.

Arabari dagokionez, udalak behin-behineko onespinen erabakiaren berri emango die udalerriko administrazio-batzarrei, eta, horretarako, erabakiaren eduki osoa bidaliko die.”

Arestian azaldutakoaren ondorioz, Asparreneko Udalak, Arabako Foru Aldundiak 2015eko irailaren 15ean SAUI-2 desklasifikatzeari buruz egin zuen txostenaren arabera, hasieran onesteko erabakiaren ostean, SAUI-2 sektoreari buruzko zehaztapena berriro jendaurrean jarri zuen; espedientean dago emaitza.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak Asparrena udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren espedienteari buruzko txostena egin zuen 5/2015 bilkuran, irailaren 16koan, foru aldundiak Asparreneko Udalari SAUI-2 sektorearen desklasifikazioa berriro jendaurrean jartzeko eskatu ziola jakinda.

Jakina, hain zehaztapen garrantzitsua jendaurrean jarri behar bazen, industria lurzoruko 22 hektarea desklasifikatu behar baitira eta horren balioespina, 2/2006 Legeak ematen dituen eskumenetan oinarrituta, batzordeari baitagokio, logikoa eta legezkoa izango zen SAUI-2 sektoreari buruzko inolako erabakirik ez ematea prozedura burututa egon arte.

Aurrekoa gorabehera, batzordeak, bere eskumenetatik, Plan Orokorraren agiri osoari buruzko txostena egin du eta horrek erabakitakoa ziurtatu du, jarduera ekonomikoko lurzoruaren antolamenduari eta kuantifikazioari dagokionez, zera adieraziz:

“4b. Jarduera ekonomikoko lurzoruaren antolamendua eta kuantifikazioa

– Udalerrirako proposatutako jarduera ekonomikorako lurzoruaren ereduaren eta kuantifikazioaren aldeko txostena egin da.

Aurrekoa gorabehera, eta puntualki, SAUI-2 arearen sailkapen aldaketaren kontrako txostena egin da, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritako prozeduratik kanpo egin da eta.

– Espedientearen eta Arabako Aldundiaren (horren sustatzailea baita) Donemiliaga-Asparreneko Industrialdearen Bateragarritze Planaren doikuntzaren balioespena bidali da”

Era berean, ziurtapenaren II. puntuak haxe adierazten du:

“Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen lehen xedapen gehigarriko 3. puntuan xedatutakoaren ondorioetarako, batzorde honi baitagokio, txosten honetan jasotako baldintzak txertatutakoan espedientea behin betiko onetsi ahal izango da, berriro batzorde honen txostenik jaso behar izan gabe”

Ziurtapenaren analisiak agerian uzte du batzordea kontraesanean dagoela; izan ere, alde batetik esaten bada jarduera ekonomietarako lurzoruaren ereduaren eta kuantifikazioaren aldeko txostena dagoela, ezin da hurrengo paragrafoan esan puntualki SAUI-2 sektorearen sailkapen aldaketaren aurka dagoela, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritako prozeduratik kanpo egin delako.

SAUI-2 sektorearen desklasifikazioa prozedura urratuz egin bada, dagokiona prozedura hori lege ezarritako manuen arabera burutu arte erabakirik ez hartzea da. Hori dela-eta, batzordearen txostenak ez du inolako balio juridikorik SAUI-2 sektoreari dagokionez, prozeduratik kanpo eman delako eta txosten horretan oinarritzen den ebazpen batek deuseztasuna ekarriko lukeen akats formal bat egingo lukeelako.

Egia da EAELHLren lehen xedapen gehigarriko 3. puntuak EAELABi ahalbidetzen diola txosten berri batetik salbuestea haren aldeko txostena erabat eta baldintzarik gabe lortu ez duten espedienteetan, baina EAELABek funtsezko aldaketak edo zuzenketak ezartzen dituen espedienteetaz ari da, ez lege ezarritako prozedurari jarraitu ez zaion kasuez.

EAELHLren lehen xedapen gehigarriko 3. puntuak ez du adierazten EAELABen bigarren txostenetik salbuetsi ahal direnik beste informazio publiko bat izapidetu behar den kasuak. Hori horrela da zeren eta jarraitutako prozeduraren legezkotasunaren kontrola espedientea behin betiko onesteko eskumena esleituta daukan organoari dagokiolako.

EAELHLren lehen xedapen gehigarriko 3. puntuak soilik ahalbidetzen du EAELABek txosten berririk eman behar ez izatea EAELABen txostenaren ondorioz funtsezko aldaketak edo zuzenketak sartu behar diren kasuetan, baldin eta agiria aldaketa edo zuzenketa zehatz horiek biltzera mugatzen bada. Hala ere, aipatutako xedapenak ez du baimentzen EAELHLren 91.2 artikuluan ezarritako prozedura aldatzerik; horren arabera, EAELABen txostena prozeduraren azken fasean eman behar da, eta egondako informazio publiko guztien emaitza kontuan hartuta, behin betiko onepenenaren aurretik.

Berdin dio batzordearen txostenak espedienteari buruzko beste txosten bat egitera ez behartzea; izan ere, ez da aurka egin ahal zaion administrazio egintza, baizik eta zuzenbidera egokitu ez den izapide egintza, EAELHLren 91.2 artikulua urratu zuelako eta lehen xedapen gehigarriko 3. puntuak ez ziolako horretarako baimenik ematen.

Horregatik, Arabako Foru Aldundiak ezin du Asparreneko HAPO zehaztapen horri dagokionez behin betiko onetsi, SAUI-2 sektorearen desklasifikazioari buruzko txosten berria eman arte.

Zortzigarrena. LUEren zonifikazioa eta kalifikazio orokorra.

A) Asparreneko HAPOk lurzoru urbanizaezina sailkatzea eta zonifikatzea proposatzen du, Arabako Hirigintza Planeamendua Normalizatzeko Sistemari ezarritakoaren arabera, P-1 plano sortan islatu bezala, eta planootan jasotako “gaineratutako baldintzek” ezarritakoarekin bat etorritik. Halaber, lurzoru urbanizaezina dela eta, lurzoru mota horren kategorien arabera berraztertzeko ordenantzak ezartzen dira seigarren tituluan. Bertan, kalifikazio orokorrarentzat zuzenean baimendu daitezkeen eraikuntza erabilerean eta jardueren mugak eta gaineratutako baldintzen eremuetan erabilere ezarritako bestelako mugak arautzen dira.

Ezarritako zonifikazioa zuzena da eta ezin hobeki egokitzen da Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideetara eta LPPra. Hain zuzen, lurzoru urbanizaezinaren zonifikazioa kategoriatan banatuta dago: batetik, babes bereziko lurzoru urbanizaezina eta, bestetik, lurzoru urbanizaezin zaindua. Hortaz, zonak Arabako erdialdeko LPPn eta arloko lurralde planetan hizpatutako baldintzetara egokitzen dira. Bide sareen sistema orokorrak soilik zuzendu beharko dira, ebaizen honen hamalagarren gogoetan hizpatutakoaren arabera.

B) EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko ALPri dagokionez:

Bai araudiak bai agiri teknikoko planoek argi eta garbi adierazten dituzte ibai eta errekekiko distantziak eta zehazten dute erretiroak ibilgu publiko mugaketa lerroari dagokionez ezarriko direla. Beraz, agiria zehatza da alderdi horretan.

C) Ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedurari dagokionez, espedientea urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren arabera izapidetu da, eta egiaztatu da ingurumen memorian jasotako baldintzak HAPOn agiri teknikoan txertatu direla.

Ingurumen Iraunkortasuneko Zerbitzuak 2016ko otsailaren 10ean aldeko txostena eman zuen ingurumen memoria betetzeari dagokionez, eta gomendio bakarra eman zuen nekazaritza eta basogintzako ALPrek erabilerei buruz.

Nekazaritza eta Basogintzako Arloko Lurralde Planean (ALP) "mendi - baso - mendi bakana" kategoriarako ezarritako erabilerak ez dira lotesleak eta, beraz, ezin dira udalaz gaindiko planeamendutik eskatu. Hori ALPrek nahitaez bete beharreko baldintza ez bada ere, udalak artikulua hori aldatzea erabaki du eta paragrafo hau gehitu du:

"Salbuespenez, hostozabalez ez estalitako lurzati pribatuetan (nekazaritza eta abeltzaintza jardueri zuzenean lotutako eraikinak, eraikuntzak eta instalazioak, titularraren etxebizitza barne), eskatzaileak egiaztatzen duenean beste mota bateko lurzoruan ezin direla gauzatu"

Bederatzigarrena. Antolamendu xehatuko eremuei dagokienez.

Ondo irudikatuta daude bai P3 planoetan, sailkapen orokorrekoetan, bai P4 planoetan, kalifikazio xehatukoetan. Bestalde, hirigintza araudia antolamendu xehatuko eremuka (AXE) definituta dago argi eta garbi, eta hiriko gisa sailkatuta daudenak bereizten dira. Antolamendu xehatuko eremuei buruzko B agiriko arau bereziek egikaritze unitateen zerrenda herriguneka deskribatzen dute.

Jarraian, antolamendu xehatuko eremuen laburpena egin da, herriguneka:

ALBEIZ:

Albeiz herrigunean lau egikaritze unitate bereizten dira, B agiriko antolamendu xehatuko eremuetan deskribatuak, hiri lurzoru finkatugabe gisa kategorizatuak.

S-1 bizitegitarako sektore urbanizagarriari dagokionez, Plan Orokorrak onetsitako garapen planeamendua indarreko legeriara egokitzen du, dentsitatea, eraikigarritasuna eta etxebizitza kopurua handituz; hain zuzen, 38 etxebizitza egongo dira eta familia bakarreko, bi familiako eta familia anitzeko etxebizitzak eraikuntza mota mistoak egongo dira.

AMETZAGA:

Ametzagan egikaritze unitate bakarra mantentzen da, erabiltzen ez den nekazaritza nabe batek okupatutako lurzorua, herrigunearikiko mugakidea dena, gehienez 6 etxebizitzatarako edukiera duen bizitegitarako lurzorua bihurtzeko helburuarekin.

ANDOIN:

Andoinen hiru egikaritze unitate zedarriztatzen dira. Hiri lurzoru finkatugabe gisa sailkatutako lurzoru bat barne hartu da hegoaldean, herriguneko hiri bilbean kokatutako nabea txertatzeko eta nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi bat 3 etxebizitzatarako bizitegitarako lurzoru bihurtzeko helburuarekin.

**ARAIA:**

Araian Ajuria eta Urigoitia antzinako fabrikaren eremua azpimarratu behar da; Araia iparraldean kokatuta, ekipamendu sistema orokor gisa sailkatuta eta Plan Bereziari lotuta dago. Fabrikaren eraikina birgaitzea eta haren balioa azpimarratzea aurreikusten da; erabilera malgutunarekin bateragarria izan behar du, etorkizunean berrerabili ahal izateko.

Era berean, jarduketa garrantzitsu gisa ibai parkeko AR.04 eremua biltzen da; han zenbait egikaritze unitate zedarriztatzen dira Garzabal errearen eta Zirauntza ibaiaren inguruetan. Unitate bakoitzak espazio libreen sistema orokor bat dauka jasota, Araia erdialdean ibaiaren luzera osoan sistema orokor jarraitu bat lortzeko helburuarekin.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 138.2 artikulua sistema orokorren lortzea hiri lurzoru finkatugabeari zein hiri urbanizagarriari atxikitzei aukera aurreikusi zuen. Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 12ko 94/2014 epaiaren ostean, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 138.2 artikulua idazketa honela geratu zen:

“Sistema orokorren sareetako zuzkidura publikoetarako beharrezkoak diren lurzoru eta eskubideak jarduketa integratuetan sartu ahal izango dira, doan lortzeko eta, hala badagokio, zuzkidura horien egikaritzea finantzatzeko”.

Aldundi honek Plana lehenengo aldiz jendaurrean jartzeko fasean aurkeztutako alegazioak aztertu ostean, ondorioztatu zen sistema orokorren atxikitzea edo sartzeari argitu eta aldatu behar zela Araia sektore urbanizagarrietan eta hiri lurzoru finkatugabeko 2., 9., 14., 15., 16., 17. eta 18. egikaritze unitateetan. Kontu hori Plan Orokorraren agiri tekniko berriaren konponduketan, idazketa taldeak arrazoiketa hau zirriboratu zuen:

“Izaeragatik eremu bati baino gehiagori edo udalerriri osoari balio dien espazio libreak eta berdeguneak jotzen dira sistema orokortzat (SO). Lortzeko barne hartzen diren SOak funtzionalki balio dioten sektoretik edo unitateetik hurbil daudenak eta horien jarraipenean daudenak dira, horrez gain beste sektore edo eremu batzuei balio ahal badiete ere. Hori gertatzen da 2., 9., 14., 15., 16., 17. eta 18. egikaritze unitateetan sartutako SOekin, fisikoki horien barruan baitaude eta funtzionalki modu berezian balio baitiote, horien aldameneko espazio libre gisa (beste eremu batzuei balio izateaz gain).

Lortzeko atxikitako SOak sektoreari dagokionez urrun edo urruti daudenak dira, hari bereziki balio ez badiote, gainerako sektoreen antzeko mailan baizik. Hori gertatzen da 2. eta 3. sektoreei atxikitako SOekin, haietatik urrun baitaude eta ez baitiote modu berezian balio, gainerako sektoreen neurri berean baizik.

Kontu hori agirik zenbait zatitan argitu da, bai testuetan, bai planoetan. Halaber, zehazten da ez dela nahitaezkoa horiek urbanizatzea, azterketa ekonomiko eta finantzarioko 2.4 puntuan adierazi den moduan. Alderdi horiek egitura antolamenduari eragiten dio eta jendaurrean jarri behar da”.

Sistema orokorren zuzkidura publikoetarako lurzoru doan lortzeko, kasu batzuetan, egikaritze unitateetan sartzeari argitu eta, beste batzuetan, lurzoru urbanizagarriko sektoreei atxikitzen dira.

Agiri tekniko berriaren antolamendu xehatuko eremuetako egikaritze unitate bakoitzaren hirigintza fitxak aldatu ditu eta argitu du 9., 14., 15., 16., 17. eta 18. egikaritze unitateetako sistema orokorrek hiri lurzoru finkatugabearen kudeaketa eremuetan barne hartzen direla.

Era berean, Ajuria jauregiko egungo lorategiari dagokion espazio libreen sistema orokorreko zonan, alde bat UE-2 unitatearen jarduketa integratuari lotuta dago, eta bestea, S-3 lurzoru urbanizagarriko sektoreari atxikita. Beraz, AR.03 AXEko “UE-2 Ajuria txaleta” delakoaren hirigintza fitxan espazio libreen sistema orokorren 7.256 m<sup>2</sup> barne hartu dira erabilera publikorako lorategi gisa kudeatzeko lortzeko asmoz, bai eraikuntza bai berdegune mugakidea gordetzeko eta haien balioa azpimarratzeko. Modu berean, S-3 sektorearen hirigintza fitxan Ajuria jauregiko lorategiko beste aldearen (4.694 m<sup>2</sup>) atxikipena zehaztu da.

Proposatutako antolamendu berria zuzentzat jotzen da eta hirigintza legezkotasunera egokitzen da, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 53.f eta 54. artikuluetako sistema orokorren definizioarekin bat etorriz: "Zuzkidura hauek osatzen dute sistema orokorren sarea: planeamendu orokorrak ezarritako antolamendukoak direnak..." eta "sistema orokorren sareak hirigintzaren garapenaren arrazionaltasuna eta koherentzia ziurtatu behar ditu, erabilerak kolektiboko espazioen kalitatea eta funtzionaltasuna bermatuta. Halaber, sistema horiek egikaritze-eremu jakinei lotzea edo, hala badagokio, haietan sartzea..."

Proposatutako antolamendu berria eta sistema orokorrak egitura antolamenduaren barruan daudenez, Plan Orokorraren agiri berria jendaurrean aurkeztu da berriz, ebazpen honen aurrekarietan zehaztu den moduan.

Espazio libreen sistema orokorren kontua AR.08 AXEko "UE-2 Ajuria txaleta" delakoaren hirigintza fitxan behar bezala jaso bada ere, gabeziak eta akatsak antzeman dira eta konpondu egin beharko dira: azpizona guztien deskribapena, hain zuzen a.3 eta a.4 azpizonaren (txaletari baitagokio) eraikuntza parametro zehatzak, etxebizitza kopuru osoa eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko ordenantza adieraziz; halaber, katalogoko fitxen zenbaketako hirigintza arauen eta ondare eraikiaren katalogoa babesteko arauen arteko kontraesanak aipatu behar dira, Ajuria txaletaren kasuan.

#### ARRIOLA:

Arriolak ARR.02 eremuan jasotzen du eremuaren mendebaldean kokatutako familia bakarreko etxebizitzaren azken plan partzial onetsiaren antolamendua. Halaber, bi egikaritze unitate proposatzen ditu.

#### EGINO:

Eginon antolamendu xehatuko eremu bat, EG.01, planteatzen da; hiri lurzoru guztia eta iparraldean kokaturiko bi egikaritze unitate hartzen ditu barne, plano guztietan islatzen diren moduan. Sistema orokor pribatu erlijioso bat dauka gunearen ekialdean; horrek bere antolamendu xehatua du.

#### GORDOA:

Gordoa plano sorta guztietan behar bezala jasotzen dira aurreikusitako lau egikaritze unitateak, lurzoru hutseko azalera handia dauka eta.

#### IBARGUREN:

Ibargurenaren guneko iparraldean dagoen eta elizarekin mugakidea den berdeguneko toki sistema handitzea proposatzen da, baita egikaritze unitate bakarra ere hegoaldean.

#### ILARDUIA:

Gunearen hegoaldean hiri lurzoru birdoitzea proposatzen da, egikaritze unitate bi zedarritzatzeko; hori kudeaketa planoetan islatu beharko da.

#### URABAIN:

Bi bizitegitarako eremu eta bi egikaritze unitate bereizten dira, iparraldean eta hegoaldean, hurrenez hurren.

Hamargarrena. Zonifikazio orokorra hiri lurzoru urbanizagarrian.

P3 plano sortan zehatz-mehatz adierazita dago, eta argi bereizten dira zona pribatuak eta publikoak, sistema orokorrak, erabilerak eta beharrak, bizitegitarakoak, hirugarren sektorekoak, industrialak, ekipamenduak, espazio libreak, bideak, hiri zerbitzuak eta abar.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 77. artikulua gutxieneko eraikigarritasuna finkatzen du garapen iraunkorraren mesedetan, hiri bilbearen gutxieneko dentsitateari eta trinkotasunari eusteko. Kasu honetan, egiaztatzen da eremu guztiek indarrean dagoen hirigintza legeriak ezarritako mugak betetzen dituztela.

Hamaikagarrena. Hirigintza kudeaketari dagokionez.

Hirigintza kudeaketari buruzko informazioa P6 plano sortan islatuta dago, Arabako Foru Aldundiaren planeamendu normalizazioarekin bat etorriz. Hori guztia dela eta, agiriak hirigintza kudeaketari dagozkion gaiak behar bezala adierazten dituela uste dugu.

Hirigintza araudiko arau zehaztetan kokatutako eremuei dagozkien fitxek garapen planeamendua lantzeko eta onartzeko eta lurzorua programatzeko epeak ezartzen dituzte.

Halaber, eremu bakoitzaren fitxetan, argi eta garbi zehazten dira lurzorua lortze aldera jarduketa integratuaren barruan gaineratzen diren sistema orokorrak. Dagoeneko txertatuta daudenak ere aipatzen dira, horiek lortu, egikaritu eta kostua gain hartzeko helburuarekin. D agiriak ekonomia eta finantza bideragarritasunari eta ekonomia iraunkortasunari buruzko azterketa zehatza aurkezten du. Bertan, dohaintza jarduerak, jarduera integratuak eta atxikitako sistema orokorrak zehazten dira.

Hala ere, eta zehazki Ajuria jauregiari dagokionez, azterketa ekonomiko eta finantzarioak zera aipatzen du berariaz: "Ajuriatarren jauregia eta haien lorategi batzuk eskuratzea aurreikusten da, herritarrentzako erabilera publikoko ekipamendu gisa, salerosketa, hitzarmen edo desjabetzapen bidez," baina desjabetzapen horretarako zenbatetsitako epeak zehaztu beharko dira. Halaber, ekipamendu generikoko sistema orokor bat lortzea xede duen jarduketaren aurreikusitako zenbatespen ekonomikoa egin beharko da.

Hamabigarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari dagokionez.

Lurralde Antolamendurako Batzordeak Plan Orokorraren lehen agiriaren aldeko txostena eman du oro har eta balorazio positiboa eman dio planteatutako lurralde ereduari. Alderdi batzuk, txosten izaera dela eta, lotesleak dira; txosten honek kontuan hartu ditu eta, laburpen gisa, ondoren aipatuko dira:

1. Bizitegitarako eta jarduera ekonomikoetarako finkapenak. EAELABek Asparreneko HAPO-ren espedientearen aldeko txostena eman zuen, etxebizitza eta industria eskaintza lurralde eta sektore planeamenduan ezarritako kopuruarekin bat baitator.

2. Azpiegiturak eta zerbitzuak.

Horren aldeko txostena egin da.

3. Ingurune fisikoa.

Horren aldeko txostena egin da, baina Albeizen ibaien eta erreken ALPko erretiroak adierazi behar dira.

4. LAGen, Lurralde Plan Partzialen eta Arabako Erdialdeko LPPren eraginak.

Horien aldeko txostena egin da.

5. Ekipamenduak eta espazio libreak.

Horien aldeko txostena egin da, baina egitura antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren artean igarri den kontraesana zuzendu behar da.

Hala ere, ondoren Plan Orokorra berriro jarri zen jendaurrean, birritan, 2015eko urriaren 2ko eta 2016ko apirilaren 7ko osoko bilkuraren erabakien ostean, egitura antolamenduari buruzko funtsezko kontuak aldatu zituelako. Horregatik, eta zazpigarren oinarriaren arabera, uste da jendaurrean berriro jarri ondoren eta aurkeztutako alegazioen ostean beharrezkoa eta nahitaezkoa dela EAELABek txosten berri bat egitea eta erabaki berri bat ematea.

Hamahirugarrena. Historia, Arkitektura eta Arkeologia Intereseko Ondasunen eta Espazio Publikoen Katalogoari dagokionez.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, 2015eko irailaren 2an, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren aldeko txostena bidali zuen Asparreneko Hiri Antolamendurako Plan Orokorriari dagokionez. Era berean, espedientean Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren aurreko txosten bat dago; bertan, hasierako onespren-agiriari buruzko gogoeta batzuk egin ziren, hain zuzen, III. kapituluaren gainean (Historia eta Arkitektura Ondarearen Babesteko Araudia).

Asparreneko Babes Arauek eta Katalogoak udalerrri guztiko ondare katalogatua babesteko plan berezi bat egiteko beharra adierazte dute. Aipatutako plan berezia onetsi arte, banakako fitxa batzuk idatzi dira eraikin bakoitzari buruz; eraikuntzaren kokapena, deskribapena, arkitektura, historia eta funtzio interesa eta kontserbazio maila jasotzen dute. Era berean, bakoitzaren argazkiak eta babes eta esku hartze irizpideak erantsi dira.

Hamalagarrena. Errepideen foru sarearen aldatetei dagokienez, Plan Orokorriaren agiri berriak espedientean dauden aurretiko txostenetan Arabako Foru Aldundiak deskribatutako baldintza gehienak bildu ditu. Dena den, oraindik antzemandako zenbait akats konpondu behar dira, 2016ko urriaren 6ko Errepide Zerbitzuaren txostenean jasota dagoen moduan; ondoren aipatuko dira:

#### 1. Udalerrriaren kategorizazioa. Gaineratutako baldintzak

P01 planoetan (Udalerrriaren kategorizazioa. Gaineratutako baldintzak, bai 1:10.000 eskalan bai 1:5.000 eskalan) Bide Komunikazioen Sistema Orokorriaren zedarriztapenari, industrialdea zeharkatzen duenari, jarraipena eman behar zaio, udalerrri guztian sistema orokorriaren haus-turarik gertatu gabe.

A-3138 errepidetik Urabainerako hego-ekialdeko sarbidean, E.1 sistema orokorra ez da hirigunera heltzen; aitzitik, bidearen eta A-3138 errepidearen arteko gurutzagunean geratzen da.

#### 2. Zonifikazio globala hiri lurzoru urbanizagarrian, zonifikazio xehatua eta eraikuntzaren baldintzak.

Albeiz eta Gordoia herriguneetan, jabari publikoa eta zortasun lerroa galtzadako kanpoko ertzetik (lerro zuria) neurtu dira, ez zapaluneko kanpoko ertzetik, Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauan adierazten den moduan; beraz, zuzendu egin behar da.

Industrialdearen zonan Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauarekiko eta Arabako errepideen plan integralarekiko desadostasun batzuk zuzendu behar dira.

Zonifikazio orokorreko planoan, hiri lurzoru urbanizagarrian (P03.02) e.11 bide sistema orokorra txarto jaso da; industrialdearen eremuaren zedarriztapenetik kanpo utzi beharko da.

Zortasun zona zuzenki irudikatu beharko da, A-3020 errepidearekin mugakidea den industrialdearen eremuaren barruan; zortasun zona, Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauaren arabera, jabari publikoko zonaren mugatik bost (5) metrora kokatuko da. AFAk jabari publikoko zona eta A-3020 errepidearekin mugakidea den zortasun zona emango ditu, Asparreneko HAPOko dagozkien planoetan sartze aldera.

#### 3. Ondoren adieraziko diren auzo errepideetan, adierazitako KPen artean horien tarteen desafekzioa eskatu beharko da, errepidearen amaierak hiri lurzoruaren hasierarekin bat egin dezan, foru sareko errepideen katalogoan, Arabako errepideen plan integralaren bidez onetsian, jasotzen den moduan:

Ametzaga A-4120; 36+320 KP eta 36+290 KP

Andoin A-4116; 36+320 KP eta 36+290 KP

Ibarguren A-4115, 35+060 KP eta 34+990 KP

Hamabosgarrena. Alegazioei dagokienez

56 alegazio aurkeztu dira udalak emandako jendaurrean jartzeko aldietan. Era berean, aldi horietatik kanpo Francisco López de Guereñu Madinabeitia jaunak sinatutako alegazioa aurkeztu da aldundiaren erregistroan.

Ados gaude udalbatzak aurkeztutako alegazio guztiei dagokienez emandako ebazpenarekin, Plan Orokorren agiria aldatutakoan, udalak hori kendu ostean.

Francisco López de Guereñu jaunak aurkeztutako alegazioari dagokionez, begien bistakoa da epez kanpo jarri dela. Hala ere, Arabako Foru Aldundiari espedientea izapidetzean jarraitutako prozeduraren legezkotasuna kontrolatzea dagokionez eta alegazioan planteatzen denez HAPOren izapidetzea irregularra dela “espazio libre ireki eta eraikiezinak” direlakoan kategoriari dagokionez, kontu horri buruz erabakitzea ematea komeni da.

Alegazioa jarri duenaren iritziz, hasierako onespeneren ostean beste kategoria batzuk sortu dira araudiaren 1.5.1.16 artikulua (eraikuntzak lurzoru okupatzeari buruzkoa) idazketan; kategoria horiek jabetzaren estatutuaren konfigurazioa mugatzen duten muga juridikoak ekartzen dituzte, eta jendeari oro har eta zehaztaper horiek ukitutako pertsoneri zehazki alegatzeko aukera oro kentzen zaie. Hori dela eta, espedientea atzera eramateko eskatzen du, berriro jendaurrean jartze aldera.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak honako hau ezartzen du 90.6 artikuluan:

“Jendaurreko erakustaldiaren emaitzak ikusita, udalak behin-behingo onartuko du plan orokorra, bidezko iritzitako egokitzapenak eginda. Dena den, egokitzapen horiek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onespenera eman beharko dio berriz planari eta jendaurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin-behingo onartu aurretik”.

Transkribatutako artikuluan ezarritakoa ikusita, zehaztu beharko da ea 1.5.1.16 artikulua idazketan sartutako aldaketak hasiera batean aurreikusitako egitura antolamenduaren funtsezko aldaketatzat jo daitezkeen.

Bada, behin-behinean onetsitako 1.5.1.16 artikulua idazketan, hasiera batean onetsitako eraikuntzaren baldintzen planoetan agertzen ziren espazio pribatuak definitzen dira, halako moduan non “zortasun publikoa duen espazio pribatu eraikiezina” izendapenaren ordean “espazio publiko ireki eta eraikiezina” erabiltzen den. Hau da, erabilera publikoko zortasuna kentzen da, zuzenbidearekin bat ez datorrelako.

Aldaketek ez diote inola ere egitura antolamenduari eragiten; dokumentazio grafikoan agertzen ziren kontzeptuak definitzera mugatzen dira. Horregatik, ezin da esan jendaurrean jartzeko izapide berri bat egitera behartzen duen funtsezko aldaketa bat dagoenik.

Ilido horretan, azpimarra daiteke 45. alegaziorako erantzunean, hasierako onespeneren ostean, idazketa taldeak haxe erantzun duela:

“a.1 eta a.2 azpizona guztietan eta gainerako bizitegitarako azpizona batzuetan (a.3, a.4, a.5 eta a.6) lurzati okupazioa grafikoki arautu da eta hiru araubide bereizi dira lurzati pribatuaren barruan:

- Eraikuntzaren mugimendu area.
- Espazio pribatu itxi eta eraikiezina (oro har, atzeko aldean).

Espazio pribatu ireki eta eraikiezina (oro har, aurreko aldean, eta ez kasu guztietan).

Azken araubide horren helburua antzinako finkapenen oso morfologia bereizgarria gordetzea da: hain zuzen, horietan eraikuntza batzuetan lurzatiarekin lerrotzeko da eta beste batzuetan jabetzaren mugatik pixka bat urruntzen da; horrelakoetan, espazio pribatu hori hesitu gabe geratzen da edo oso garrantzi txikiko itxitura bat ipintzen zaio, eta horrek espazio publikoa aberasten eta sartzeko maniobra errazten laguntzen du, eraikin nagusia kalean egon dadin eta hiri ingurunea aberastu dezan.

Zona horietan hesi altuez, heskaiez eta segurtasun kamerez mugatutako kalearen sentsazioa, dentsitate baxuko urbanizazio pribatu garaikideen hain berezkoa dena, saihestu nahi da, kale zabalak eta landa tankera dituen kontzejuaren irudiaren aurkako izaera itxia ematen baitute.

Hala ere, argi geratu behar da jabetza eta erabilera pribatuak direla; beraz, hirigintza araudiak jabetzarenak ez diren autoak aparkatzea debekatzen du eta hori galarazteko monolito edo babes txikiak jartzea baimentzen du, baita zolatzearen tratamenduan bereiztea ere.

Espazio horien planoetan izendapena aldatu behar da, “zortasun publikoa du” adierazpenaren ordez “espazio publiko ireki eta eraikiezina” jartzeko eta hirigintza araudietan txosten teknikoaren irizpideak sartzeko. Hori guztia, zonifikazioa aldatu gabe.”

“Espazio pribatu ireki eta eraikiezina” kategoria kentzeko eskaerari dagokionez, adierazi behar da udalbatzari dagokion planeamendu ahalaren gauzatzean kokatzen dela eta espazio horiek zedarriztatzeak ez duela ekartzen ahal hori arbitrarioki erabiltzerik; izan ere, badago motibazioa, ados egon ala ez, antzinako finkapenen morfologiari eustearen alde egiten duena. Hesituta dauden espazio libre pribatu eta eraikiezinak egoteak ez du esan nahi “ius variandi” gauzatuz irizpide berri bat hartu ezin denik, gaur egun hesituta ez dauden lurzati guztiei aplikatzen bazaie, kasu honetan gertatzen den moduan. Are gutxiago esan daiteke banakako lotura dagoenik; izan ere, ez dira inola ere eraikitze eskubideak urratzen, eta muga bakarra lurzatiaren ohiko itxiturara mugatzen da: zoladura bereziak edo desnibel txikia onartzen ditu kaleari dagokionez, baita ornamentuzko elementuez edo altuera txikiko landareez (hala nola piboteak, jardinerak eta antzekoak) zedarriztatzea ere.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Asparreneko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra behin betiko onestea, baldintza hauekin:

1. AR.03 AXEri dagokion hirigintza fitxa zuzentzea, antolamendu xehatuko azpizona guztiak barne har ditzan, a.3 eta a.4 azpizonaren (Ajuria txaletari baitagokio) eraikuntza parametro zehatzak, etxebizitza kopuru osoa eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko ordenantza adieraziz; halaber, katalogoko fitxen zenbaketako hirigintza arauen eta ondare eraikiaren katalogoa babesteko arauen arteko kontraesanak aipatu behar dira, Ajuria txaletaren kasuan.

2. Plan Orokorraren azterketa ekonomiko eta finantzarioa osatzea, Ajuria jauregia ekipamendu generikoko sistema orokor gisa lortzeko epeak eta moduak zehatz-mehatz barne hartuz.

3. Udallerriaren kategorizazio planoak, gaineratutako baldintzak, zonifikazio orokorra hiri lurzoru urbanizagarrian, zonifikazio xehatua eta eraikuntzaren baldintzak aldatzea, bosgarren oinarriaren arabera. Era berean, hiri lurzoruen sailkapena berrikusi behar da Ametzaga, Andoin, Iburguren eta Urabaingo auzo errepideetan.

Bigarrena. Asparrena udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren behin betiko onestea, berrikusitako Arau Subsidiarioetako SAUI-2 industria lurzoru urbanizagarriaren desklasifikazioari dagokionez, zazpigarren oinarriaren arabera.

Hirugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari eskatzea Arabako Foru Aldundiak ematen duen behin betiko ebazpenaren aurretik industria lurzoru urbanizagarriaren (SAUI-2) desklasifikazioari buruzko beste txosten bat egin dezan Asparrena udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren agiria, 2015eko maiatzaren 21ekoa, behin-behinean onesteko erabakiaren ostean zehaztapen hori jendaurrean jartzearen emaitza kontuan hartuta.

Laugarrena. Lehen xedapenean aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espediente foru aldundiari bidaliko zaio, berriro jendaurrean jarri behar izan gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, eginbideak gauzatu daitezen eta argitara dadin.

Bosgarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Seigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortu du. Haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan; horretarako bi hileko epea egongo da ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 25a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*

*JOSEAN GALERA CARRILLO*

**ERANSKINA: Laburpena Dekretuaren 15.b) artikulua ezartzen duen baldintza jasotzen duena (211/2012, urriaren 16koa)**

Asparreneko hiri antolamenduko plan orokorra aurkeztu da, ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura igaro dezan, 211/2012 Dekretuaren arabera (211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoko prozedura arautzen duena). Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak txosten hau jaulkitzen du Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskatuta, 211/2012 Dekretuaren 15-b artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren barruan, 2013ko irailaren 10ean, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak aipatutako agiria jaulki zuen, 211/2012 Dekretuaren I. eranskinak eta 10. artikulua ezarritakoari jarraituz. Ondoren, 2015eko apirilaren 23an, zerbitzu honek beronek, ingurumen memoria jaulki zuen, zeinaren xedapen eta determinazioak hirigintza antolamenduko plan orokorrean sartu behar baitziren, 211/2012 Dekretuaren 13. artikulua 4. idatz zatiri jarraituz.

Sustatzaileak berak ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren barruan idatzitako ingurumen azterlan estrategikoaren determinazio eta baldintzak, eta orobat ingurumen memorian ezarritako determinazioak, behar bezala sartu dira behin betiko onartzeko proposatzen den hiri antolamenduko plan orokorraren dokumentuan.

HAPO agiria lantzerakoan hainbat aukera hartu dira aintzat, planaren alderdi hauei dagokienez:

- Sektore urbanizagarri guztien mugaketa, dentsitatea eta egitura.
- Egikaritze unitate esanguratsu batzuen mugaketa, dentsitatea eta egitura.
- Hiri lurzoru finkatuaren sailkapena herrigune batzuetan eta besteetan.
- Araiko erdigunea oinezkoentzako bihurtzeko bide egitura.
- Lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioa.
- Bizitegiarako hiri lurzoruaren sailkapena.
- Aizkorri-Aratz-Entzia korridore ekologikoaren tratamendua Egin eta Andoin artean.

Hiri antolamenduko plan orokorra izapidetu eta zehazteko orduan, hainbat aukera aztertu eta ebaluatu ziren ingurumenaren aldetik, eta ingurumenaren aldetik egokitzen eta jasangarritzat jo ziren azkenean behin betiko onartzeko agiriak jaso zituen aukerak.